



Henduen literatura

Gauza baten ametsa
Pier Paolo Pasolini

Itzultzailea: Josu Zabaleta.
Alberdania, 1998.

Evviva, batez ere, la libertà

EZ DAKIT, hartzen dut *Gauza baten ametsa* eskuartean, eta ezin diot nostalgia poxi bati izkin egin. Denbora zaharren mira txatxua izango da, joandakoa oraingoa baino txukunagoa denaren ustelustea. Maria Isabel Llaudesek esaten zuen, iragan garai oro dirudikigu hobea. Azken batean, aro delikatu bezain loriatsu batez ari gara: orduko hartan sartu genuen serioago muturra literaturaren zera honetan, dena zen berri, dena ilusionagarri. Baina, langintza zaila izan arren, objektiboago begiratuta ere, sentsazioak esango nuke baduela egiatik zerbait. Ez dela soilik nostalgia txepela, baizik eta kritika konparatiboa. Itzulpen estimagarriak egiten ziren garai hartan –gogoratu Miguel Torga eta *Piztiak*, Agota Kristof eta *Koaderno handia*, Josef Skvorecky eta *Mundu mingotsa*–; paraliteraturak ere laguntzen zuen, bilduma identifikagarriak, portada korrektoak, ukimenerako –bizio konfesaezin horiatseginak. Inoiz entzun dut idazleren batek horienatik nahi izan zuela publikatu hor.

Iritzi horri galga jartzen dion elementu bat sartzen da, ordea, tartean: 14 urteren buruan ea irakurketak eusten dion, ea ni bilakatu naizen irakurle hau ez den sobera petraldu. Kontakizun pasionagarri gisa gogoratzen nuen *Gauza baten ametsa*, hain zuzen, bizitzara jaiotzen ari diren gazte batzuen gainekoa. Pasoliniren lehen eleberri argitaratua, idazlea gazte zeneko leku-denborak harrapatzen ditu, Italia

ipar-ekialdeko Friuli –eta friuliera bera, tarteka–, bigarren mundu gerra ondorengoak. Komunistak dira gazteok, ez hainbeste ideologiagatik, gehiago kondizio sozialak hartara behartuta, landa giroko langile; herrian ezin, emigrazioaren bidea hartzen dute, Jugoslaviara –“han komunismoa zagok behintzat”–, Suitzara, atzera burumakur bueltatzeko etxera. Ezen, han nahiz hemen, beste ezeren gainetik, eguneroko herstureratik urrun, askatasuna baita bilatzen dutena.

Eta, egia da, ez da nobela inondik ere biribila –eta agian eskerrak–. Are da lau xamarra. Nahi baduzu, teknikoki, herrenak ditu nabarmenak, elipsiak baino gehiago dira gabeziak. Baina, bestalde, zeinen ondo jasotzen duen gerra osteko giro hori, industrializazioak erabat harrapatu gabeko testuinguru bat, non bizitzak aurrera egin duen denboran zehar apenas aldaketarik izan duela. Zabaleta itzultzaileak hitzaurre jakingarri askoan dioen bezala, hemengo gerra osteko giroa ere izan zitekeena, soilik aldatuta Nini Infant, Milio Bortolus eta Eligio Pereisson, eta horien partez jarrita, adibidez, Amado, Demetrio eta gure Felix. 14 urteren buruan oraindik usain dezakegu askatasun, ez hainbeste egarria, ezpada gosea. ■

Aritz Galarraga



UPV/EHU n euskaraz irakurri eta idazten dugu
<http://go.ehu.es/unibertsitate-liburuak>



Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea